

ABESTIAK

AINTZALDU DAIGUN AGATE DEUNA

Aintzaldu daigun Agate Deuna
bihar da ba Deun Agate,
etxe honetan zorion hutsa
betiko euk(ik)o al dabe.

Deun Agate(re)na batzera gatoz
aurten be igazko berberak.
igaz le(ge)z hartu gagizuez eta
zabaldu zuen sakelak.

Orain bagoaz alde egitera,
agur deutsugu gogotik.
Agate Deuna bitarte dala
ez e(g)izu izan dongerik.

... Ieup!

SANTA AGEDA AGEDA

Santa Ageda Ageda
gure martiri maitea
etxe honeri emon eiozu
zoriona eta bakea

Zorion etxe honetan
oles egitera gatoz
aterik ate ohitura zaharrak
aurten berritzeko asmoz

Santa Ageda Ageda
gure martiri maitea
etxe honeri emon eiozu
zoriona eta bakea

eup!

SANTA
ÁGUEDA

AGATE DEUNA

OTSAILAK 4
FEBRERO

ABESTERA ATERATZEKO EGUNA



Zierbena
Udale - Ayuntamiento



BFA
DFB

Elkarrizketen Foru Aldekoa

Elkarrizketen Foru Aldekoa



Hautatu emandako atsotitzaren baliokideak, eta bidal itzazu erantzun zuzenak Zierbenako Kultur Etxera, otsailaren 9a baino lehen. Erantzun zuzenak bidaltzen dituzuenon artean zozketa egingo da, eta irabazleak 50 €-ko erosketa txartela irabaziko du, Elkar Iparragirre liburu-dendan gastatzeko. Zozketa otsailaren 13an izango da, Kultur Etxean, eta irabazlearen txartela une horretan Kultur Etxean dagoen erabiltzaile batek aterako du. (Zierbenan erroldatuta daudenek baino ezin dute parte hartu).

Elije la respuesta acertada, y envíalas a la Casa de Cultura de Zierbena, antes del 9 de febrero. Se realizará un sorteo entre las personas que hayáis enviado las respuestas acertadas, y la ganadora o el ganador obtendrá un vale de 50 € para gastar en la librería Elkar Iparragirre. El sorteo se realizará el 13 de febrero, en la Casa de Cultura, y la papeleta ganadora la sacará alguna usuaria o usuario que en ese momento esté en la Casa de Cultura. (Solamente podrán participar las personas empadronadas en Zierbena).

1) Guztien gogora egitea da gauza nekea.

- a) Guztien nahiak betetzea ez da gauza erraza.
- b) Nekatuta zaudenean, ez da erraza besteek nahi dutena egitea.
- c) Guztien gogoia kontuan izatea ez da nekagarria.
- d) Gauza guztiak gogoan izateak nekea sortzen du.

2) Gezurrak hanka motza du.

- a) Gezurra esaten duenak hanka motza izan ohi du.
- b) Ez da erraza jakitea gezurretan nor dabilen.
- c) Gezurretan dabilena uste baino lehen harrapatzen da askotan.
- d) Ez da oso azkarra gezurrak esaten dituenak.

3) Gaitza lapur isila.

- a) Gaitzak uste baino lehen hil ohi du jendea.
- b) Sendaezina den gaitzari esaten zaio.
- c) Gaitzak isilik lapurtzen du.
- d) Gaiztoa den pertsona bati esaten zaio.



4) Ez da horixe atzo goizekoa.

- a) Atzo goizean ikusitakoa ez da.
- b) Zerbait edo norbait berria da.
- c) Norbait edo zerbait zaharra da.
- d) Norbait gaztea da.

5) Bista ona eta elkar ezin ikusi

- a) Bista ona du baina ez du ezer ikusten.
- b) Bi lagun haserre daudenean esaten da.
- c) Adiskide bikainak dira beraien artean.
- d) Lagun berria ezagutzeko bista ona du.

6) Abendua jai huts eta gau huts

- a) Abenduan jai gutxi izaten da eta gauak motzak izaten dira.
- b) Abenduan gauetan jai gutxi egin ohi da.
- c) Abenduan gauak motzak eta jaiak luzeak izaten dira.
- d) Abenduan jai asko izaten da eta egunak motzak izan ohi dira.

LEHIAKETA

SANTA
ÁGUEDA

AGATE DEUNA



Izena / Nombre:

Abizenak / Apellidos:

Adina / Edad:

Helbidea / Dirección:

Tel.: